LITERATURA DRAMATIKOA

1.- Alderdi orokorrak

Maiatzaren 30eko 76/2023 DEKRETUAK Batxilergorako EAEko berezko curriculuma ezartzen du. Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan gaur egun indarrean dagoen curriculuma da, estatuko oinarrizko curriculuma ezartzen duen araudian xedatutakoari kalterik egin gabe. Ondorioz, literatura dramatikoaren azterketaren erreferentzia 76/2023 Dekretuaren II. eranskinean ezarritakoa da.

Curriculumaren garapena - Unibertsitatez kanpoko ikasketa antolamendua - Euskadi.eus

Literatura Dramatikoa jakintzagaiak Batxilergoko ikasleen funtsezko konpetentzien garapena modu ukaezinean aberasten du, beren kontzientzia artistikoa eta sentsibilitatea zabaltzen baititu, antzerki-generoaren ezaugarri adierazkor, sinboliko, tekniko, estetiko eta soziologikoei lotuta. Era berean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako literatura-hezkuntzarako jakintzagaian eta Batxilergoko Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura eta Literatura Unibertsaleko jakintzagaietan jarraitutako ibilbidea osatzen du. Hortaz, antzeko printzipio metodologikoak ditu.

534/2024 Errege Dekretua, ekainaren 11koa, graduko unibertsitate-ikasketa ofizialetara sartzeko baldintzak, sarbide-probaren oinarrizko ezaugarriak eta onarpen-prozeduren oinarrizko araudia arautzen dituena.

13. artikulua. Proba osatzen duten ariketen oinarrizko ezaugarriak.

1. Ariketek gaitasunen diseinu bat izango dute, eta diseinu horrek aukera emango du aurreko artikuluan aipatutako gaien berariazko gaitasunen lorpen-maila egiaztatzeko, apirilaren 5eko 243/2022 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera ezarritako curriculumetan aurreikusitako ebaluazio-irizpideak aplikatuz.
   ...
   7. Arlo bakoitzean, ariketa-eredu bakarra emango da. Hala ere, komenigarritzat jotzen bada, atal batzuetan hainbat galdera edo atazen artean aukeratzeko aukera sartu ahal izango da. Hautaketa horrek ez du inola ere ekarriko ebaluatu beharreko gaitasun espezifikoen kopurua gutxitzea.

2.- Ebaluatzeko irizpideak

1. konpetentzia espezifikoa

Irakurritako antzerki-obren interpretazioa azaltzea eta argudiatzea, osatzen dituzten elementuen eta obraren zentzuaren arteko barne-erlazioak eta testuaren zein haren testuinguru soziohistorikoaren eta literatura-tradizioaren arteko kanpo-erlazioak aztertzetik abiatuz, metahizkuntza espezifikoa erabiliz, eta obren hautemate estetikoari lotutako balio-iritziak gaineratuz.

2. konpetentzia espezifikoa

Literatura dramatikoko obra garrantzitsuen irakurketan oinarrituta interpretazio pertsonala egitea, bai alderdi tematikoak, generokoak eta azpigenerokoak, egituraren eta estiloaren elementuak eta obren balio etikoak eta estetikoak kontuan hartuz, bai beste obra batzuekin beste esperientzia artistiko eta kultural batzuekin lotura argumentatuak ezarriz.

3. konpetentzia espezifikoa

Antzerki-testuak edo zatiak elkarren artean edo beste arte-emanaldi batzuekin alderatzea, obren balio etiko eta estetikoei arreta jarriz eta antzekotasun- zein kontraste-elementuak ahoz edo idatziz argudiatuz, bai gai- eta eduki-alderdiei dagokienez, baita alderdi formal eta adierazkorrei dagokienez ere.

4. konpetentzia espezifikoa

Antzerki-testu pertsonalak sortzea, asmo literarioarekin eta estilo-kontzientziarekin, bereziki erreparatuz generoko testu idatziaren oinarrizko bi testu-sekuentziei (elkarrizketa eta akotazioak) eta esanahi-elementuen islari (espazioa eta objektu eszenikoak, pertsonaien diseinua edo interpretazio- kodeak).

5. konpetentzia espezifikoa

Literatura-kanon dramatiko unibertsal inklusiboa lantzeko ikuspegi pertsonala ematea, honako gaiei buruz iruzkin kritikoak edo ahozko zein idatzizko antzerki-testuen aipamenak eginez: genero-ikuspegia txertatzea, mendebaldeko kanonari dagokion ikuspegi etnozentrikoa zalantzan jartzea, eta gure gizartean nagusi den eta edozein gutxiengoren aurkako zapalkuntza dakarren beste edozein diskurtso.

3. Oinarrizko jakintzak

A. Modu gidatuan eta partekatuan eraikitzea literatuta dramatikoko testu garrantzitsu batzuek interpretazio bat. Testu horiek gaikako ibilbideetan inskribatuta egongo lirateke, eta testuarteko erlazioak ezarri behar dituzte genero, garai, kultura-testuinguru eta kode artistiko desberdinetako idazkien artean, bai eta haien ekoizpen-testuinguruarekin ere.

Antzerki-artea: antzerki-testua (definizioa eta elementuak); antzerki-pertsonaia; antzezpen-errealizazioa; antzerki-harrera.

Literatura dramatikoaren gaiak eta formak.

Antzerki-testuak aztertzeko, interpretatzeko eta sortzeko estrategiak.

B. Literatura dramatikoko lan garrantzitsuen harrera autonomoa.

4.- Kalifikazio-irizpideak

Probak eredu bakarra du, eta atal batzuetan aukera dago hainbat galdera edo zereginen artean hautatzeko. Probak antzerki-obra edo -pasarte bat izango du beti, eta, harekin batera, galdera sorta bat, eta ikasleek, modu egokian erantzungo badute, pentsamendu kritikorako eta gogoetarako gaitasuna eta heldutasuna izan behar dute. 90 minutuko iraupena izango du, eta hiru atal izango ditu.

EHU

1. atala. Obraren iruzkina eta analisia (4 puntu)

Alderdi hauen arabera egin behar dira iruzkina eta analisia:

a) Obraren estilo- eta argumentu-ezaugarrien azterketa.
   - Antzerki-generoa (0,5 puntu).
   - Argumentua eta obran ageri den gatazka nagusia (0,5 puntu).
   - Pertsonaien ezaugarriak (0,5 puntu).
   - Iritzi pertsonala, aztertutako obrari buruzko argudio teknikoetan oinarritua (0,5 puntu).

b) Egoera eta testuinguruaren karakterizazioa.
   - Antzerki-testuaren formaren berezitasunak (1 puntu).
   - Antzerkiko testu idatziaren ezaugarri zehatzak (akotazioak eta dialogoak) (1 puntu).

Antzerki-obraren iruzkinean eta analisian, hauek balioetsiko dira: koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarriei buruzko ezagutzak.

2. atala. Antzerki-praktikak jorratuz testu-dramatiko bat sortzea eta argudiatzea (3 puntu).

Argudiaketa- eta planifikazio-testu bat idatzi behar da lehenik, eta alderdi hauek landu behar ditu, orri-erdiko tartean:
   - Testuko ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak garatu. (1 puntu)
   - Proposatutako ariketarekiko egokitasuna. (1 puntu)

Ondoren, orri-erdiko testu dramatiko bat idatzi, argudiaketan zehazturiko ideiak aintzat izanik. (1 puntu)

3. atala. Antzerki-artearen inguruko kontzeptuei buruzko galderak (3 puntu)

Erantzunek argiak eta laburrak izan behar dute. Hogei lerro nahikoak dira kontzeptu bakoitzeko. Zuzentasun terminologikoa eta sintaktikoa balioetsiko da, eta 1,5 puntu emango zaio bakoitzari.

EHU